

◀ LIBURUAK ▶

Idazleen idazteko aholkuak



Garbine Ubeda

Goikoetxea

2390. alea
2013-11-10

Tweet 2

Follow @garbineubeda

Gomendatu 0

0 0

AIZTOA ETA ARKATZA

IRATI JIMENEZ

TXALAPARTA, 2013

Aiztoa eta
arkatza



Liburuaren irazpenak
Markaitz Canok

Idazlea izan nahi zenuke eta ez dakizu nondik nora jo? Idazle izanagatik ere, ez duzu artean estilo aproposa aurkitu, eta baduzu zer hobetu, zer ikasi, zer imitatu? Jakin-min handiko irakurlea zara beharbada, idatzi asmorik ez baina autore ospetsuek ofizioan jarduteko ardatzak (eta maniak) ezagutu nahiko litzuzkeena...

Kasuotako bat baldin bada zurea, eskuartearen beharko zenuke *Aiztoa eta arkatza*. *Idazteari buruzko idazleen aholkuak (autolaguntza gida)*. Irati Jimenezek batu eta itzulitako testuak aurkituko dituzu bertan, Antton Olariagaren ilustrazio beti ederrez osatuak.

John Steinbeck, Margaret Atwood, Henry Miller, Ernest Hemingway, Stephen King edota Gabriel García Márquezen gogoetak datoz, eskema bertsuari jarraituz: lehendabizi egileari buruzko datu biografiko esanguratsuenak, eta ondotik idazketari buruzko zenbait gomendio, sarritan dekalogoan. Denetarik aurki daiteke oriotan, ohar zentzuzkoak, komentario sinestezinak, aipamen barregarriak eta perla ugari. Bat esaten hasita, Harkaitz Canok berak hitzaurrean hautatutako bera: "Literaturan ezer ez dago idatzita".

Idazkuntzatik harago, liburu hau noranahikoa eta edonorentzakoa dela dio Canok, "lanerako eta bizitzeko

jarreraz ari delako. Idazteko estiloaz eta bizitza estiloaz. Literaturaz eta krimenez. Banitateaz eta inbidiaz. Zeure bizitza hobeto kontatzen ikasteaz".

Pena da euskal autorerik ez dela ageri.